

## 6/2015 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2015EKO UZTAILAREN 6AN IZANDAKO OHIZ KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### **BERTARATUTAKOAK:**

#### **ALKATEA:**

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa

#### **ZINEGOTZIAK:**

Miren Josune Eizmendi Manterola

Aratz Luisa Urkola

Izaskun Jáuregui Saizar

Bakarne Olano Manzano

Kepa De la Iglesia Sánchez

Iñaki Merino Castro

Francisco Berbel Perez

#### **IDAZKARIA:**

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2015eko uztailaren 6an arratsaldeko seirak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohikanpoko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotzia ez da etorri eta ez du zergaitia adierazi eta neu, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

#### **1.- TALDE POLITIKOEN OSAKETA.**

Udaleko Idazkari Orokorrak egindako txostena ikusirik, Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo talde politikoaren osaketaren eta talde bakoitzeko bozeramailearen berri eman dio Udalbatzari; Udalbatza Osoa jakinaren gain geratu delarik:

#### **1.- EUSKAL HERRIA BILDU**

##### **KIDEAK:**

- Pedro María Estanga Lasa
- Miren Josune Eizmendi Manterola
- Aratz Luisa Urkola
- Izaskun Jáuregui Saizar
- Bakarne Olano Manzano

TALDEKO BOZERAMAILEA: Pedro María Estanga Lasa, Alkate-Presidentea

## **2.- EUSKO ALDERDI JELTZALEA (EAJ)**

### **KIDEAK**

- Kepa De la Iglesia Sanchez
- Iñaki Merino Castro
- Francisco Berbel Perez
- Jose Ignacio Otermin Garmendia

TALDEKO BOZERAMAILEA: Kepa De la Iglesia Sanchez

## **2.- BATZORDE INFORMATZAILEEN ERAKETA, OSAKETA ETA ESKUMENA.**

Udaleko Idazkari Orokorren txostena ikusi ondoren.

Partaideek aho batez ondorengo erabakitzen dute:

Lehena.- Ondorengo Batzorde Informatzaileen eraketa, osaketa eta eskumena onestea:

**PETSONALA**, ondorengo zinegotzietzat osatua:

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa, Batzordeburu  
Miren Josune Eizmendi Manterola  
Kepa De la Iglesia Sanchez.  
Iñaki Merino Castro

Bileren maiztasuna ez da finkatzen, uneko beharretara egokituko da.

**OGASUN ETA KONTU BATZORDE BEREZIA**, ondorengo zinegotzietzat osatua:

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa, Batzordeburu  
Izaskun Jauregi Saizar  
Kepa De la Iglesia Sanchez.  
Iñaki Merino Castro

Bileren maiztasuna ez da finkatzen, uneko beharretara egokituko da.

**HIRIGINTZA OBRA ETA ZERBITZUAK**, ondorengo zinegotzietzat osatua:

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa, Batzordeburu  
Miren Josune Eizmendi Manterola  
Jose Ignacio Otermin Garmendia. Ordezkoa: Kepa De la Iglesia Sanchez

Bilerak hilean behin izango dira.

**INGURUMENA-BASERRIA (Tokiko Agenda 21)**, ondorengo zinegotzietz osatua:

Aratz Luisa Urkola, Batzordeburu  
Iñaki Merino Castro  
Francisco Berbel Perez

Bilerak hilean behin izango dira.

**GIZARTE ONGIZATEA**, ondorengo zinegotzietz osatua:

Miren Josune Eizmendi Manterola, Batzordeburu  
Izaskun Jauregi Saizar  
Iñaki Merino Castro  
Francisco Berbel Perez

Bilerak hilean behin izango dira, hileko azken asteartetan, goizeko 9etan

**KULTURA (Kirola-Gazteria)**, ondorengo zinegotzietz osatua:

Izaskun Jauregi Saizar, Batzordeburu  
Aratz Luisa Urkola  
Iñaki Merino Castro  
Francisco Berbel Perez

Bilerak hilean behin izango dira.

**EUSKARA eta HEZKUNTZA**, ondorengo zinegotzietz osatua:

Bakarne Olano Manzano, Batzordeburu  
Aratz Luisa Urkola  
Kepa De la Iglesia Sanchez  
Iñaki Merino Castro

Bilerak hilean behin izango dira.

**PAREKIDETASUNA (Berdintasuna eta Kultur Aniztasuna)**, ondorengo zinegotzietz osatua:

Miren Josune Eizmendi Manterola, Batzordeburu  
Bakarne Olano Manzano  
Iñaki Merino Catro  
Francisco Berbel Perez

Bilerak hilean behin izango dira, goizeko 9etan

Bigarrena.- Batzordeko kideei bileren deialdia gutxienez 48 ordu lehenago egitea, presazkoak direnean izan ezik. Nolanahi ere, dagokion gai-zerrenda erantsi behar zaio deialdiari.

Hirugarrena.- Udalbatzako talde organoetara benetan bertaratzeagatik ondorengo zebatekoak ezartzea:

- Batzorde Informatiboak eta Osoko Bilkura ..... 20,00 €
- Batzordeburu modura parte hartzeagatik (B. informatibo eta osoko bilkuran). 30,00 €

1 0000.231.912.00.01 “Goi karguen dietak, lokomozioa eta leku aldaketa” partidaren kontura kontabilizatzea.

Lanaldi oso edo denbora partzialeko ordainsaria duten korporakidentzako ez da izango.

### **3.- UDALBATZA OSOAREN BILKUREN ALDIZKOTASUNA.**

Udaleko Idazkari Orokorraren txostena ikusi ondoren.

Alkate-Presidenteak proposatu du bilkurak hilero egiten jarraitzea, baita 2011/15 legegintzaldian zehar egin ohi ziren egun eta ordua mantentzea ere (hileko azken astelehenean, 18:00etan).

EAJ talde politikoaren bozemailea den Kepa De la Iglesia Sánchezek proposatu du bilkurak hilero egiten jarraitzea, 20:00etan, eta ez zehaztea bilkura egingo den eguna.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da Udaleko Ohiko Osoko Bilkurak hilero egitea, hileko azken astelehenean, 19:00etan. Ezarritako egun horietakoren bat jaieguna balitz, bilkura egingo litzateke jarraian datorren lehen egun baliodunean eta ordu berean.

Alkate-Presidenteak aurkeztutako akordio-proposamena ikusita, bertaratutakoek aho batez erabaki dute honakoa:

Udalbatza Osoaren ohiko bilkuren aldizkotasuna hilean behin finkatzea, hileko azken astelehenetan, 19:00etan. Finkaturiko egun hauetakoren bat jai egokituko balitz, hurrengo lan egunan egingo litzateke ordu berean.

#### **4.- UDALBATZAREN ORDEZKARIEN IZENDAPENAK ERAKUNDE DESBERDINETAN.**

Udaleko Idazkari Orokorraren txostena ikusi ondoren eta joan den ekainaren 13an eraturako Udal berria kontutan harturik eta Alkate jaunaren proposamenez, Udalbatzaren ordezkarien izendapenak erakunde desberdinetan onesten dira:

- **Mendi Nekazaritza Elkartea:**  
Titularra : Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa  
Ordezkoa: Aratz Luisa Urkola
- **Gipuzkoako Ur Kontsortzioa:**  
Titularra: Pedro María Estanga Lasa  
Ordezkoa: Aratz Luisa Urkola
- **Tolosaldea Garatzen:**  
Titularra: Pedro María Estanga Lasa  
Ordezkoa: Miren Josune Eizmendi Manterola
- **UEMA, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea:**  
Titularrak: Bakarne Olano Manzano eta Aratz Luisa Urkola  
Ordezkoa: Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa eta Miren Josune Eizmendi Manterola
- **Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea:**  
Titularra: Pedro María Estanga Lasa  
Ordezkoa: Aratz Luisa Urkola
- **Gipuzkoako Baso Elkartea:**  
Titularra: Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa  
Ordezkoa: Aratz Luisa Urkola
- **Tolosako Hiltegi Mankomunitatea:**  
Titularra: Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa  
Ordezkoa: Aratz Luisa Urkola
- **Loatzoko Musika Eskolako Herri Mankomunitatea:**  
Titularra: Izaskun Jáuregui Saizar  
Ordezkoa: Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa

- **Apattaerreka Industrigunea, S.L.**  
Titularra: Pedro María Estanga Lasa
- **Euskadiko Udalen Elkartea, EUDEL**  
Titularra: Pedro María Estanga Lasa
- **UDALBILTZA Partzuergoa:**  
Titularra: Pedro María Estanga Lasa

#### **5.- UDAL DIRUZAINAREN IZENDAPENA.**

Diruzain lanpostua toki-administrazioko gaikuntza nazionala duen funtzionarioentzako dago erreserbatuta, baina hirugarren mailako idazkaritza duten tokiko korporazioetan (Anoetako Udalaren kasua) funtzio horren ardura administratiboa korporazioko kide bati edo bertako funtzionario bati eman dakiok. Kasu horretan, Udalbatzak du eskumena diruzain kargua funtzionario batek ala udal-zinegotzi batek bete behar duen erabakitzeke.

Udalbatza eskuduna da erabakitzeke hirugarren mailako idazkaritza batean diruzain kargua funtzionarioak ala zinegotziak bete behar duen. Behin erabakia hartuta, alkate-lehendakariak du eskumena udaleko diruzaina izendatzeko.

Beraz, partaideek honako hau erabaki dute aho batez:

Lehena.- Udal-ogasuneko **Diruzain** korporazioko kide bat izendatzea.

#### **6.- 2015.06.16KO DEKRETUAREN BERRESPENA.**

Alkate-lehendakariaren ondorengo ebazpena ikusirik:

*“DEKRETUA*

*Anoetan, 2015eko ekainaren 16an.*

*Ikusirik 2015eko ekainaren 13an egindako ohiz kanpoko Osoko Bilkuran Alkate berria izendatu zela, hain zuzen, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa jauna.*

*Kontuan hartuta 2014ko abenduaren hogeita bederatziko ohiko Osoko Bilkuran Alkatearen ordainsaria eguneratzea erabaki zela:*

- % 100 eko lanaldia,
- Eta 2015ekitaldirako hilean 2500€ko ordainsaria finkatzea, 14 pagatan.

*Dagozkidan eskuduntzak erabiliz, EBATZI DUT:*

*Lehena.- Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa jaunari 2015eko ekainaren 13tik gizarte segurantzian altan ematea, hurrengo baldintzetan:*

- Lanaldi osoan eta
- 2015. ekitaldirako hilean 2.500€ko ordainsaria finkatzea, 14 pagatan.

*Bigarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzak egingo duen hurrengo bilera arruntean.*

*Honela agindu eta sinatu du Pedro Maria Estanga Lasa alkate jaunak eta nik idazkariak fede eman”.*

Kepa De la Iglesia Sánchez EAJ alderdi politikoko zinegotzi bozemaileak adierazi du bere taldeak erabakia berrestearen aurka bozkatuko duela, iruditzen zaielako nahikoa dela udal honetako alkate-lehendakariak dedikazio partziala izatea.

Jarraian, alkateak bozkatzeko aurkeztu du 2015eko ekainaren 16an emandako ebazpenaren berrespena; ebazpen horretan erabaki zen alkatearen urteko ordainsari gordina 35.000 eurokoa izatea, ekainaren 13tik aurrera indarrean jarrita, 14 pagatan ordainduta eta lanaldi osoko dedikazioarekin. Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Aldeko botoak: BOST (Bildu talde politikoarenak)

Aurkako botoak: LAU (EAJ talde politikoarenak)

Abstentzioak: BAT ERE EZ

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, alkate jaunak proposaturikoa onesten da.

## **7.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, GAI HAUTAN:**

- **Alkateordeen izendapena**
- **Udaleko bulegoen erabilera**

2015eko ekainaren 22 eta 29ko alkateordeen izendapena eta udaleko bulegoen erabilerei buruzko ondorengo ebazpenen berri eman da Korporakideek jakinaren gain geratuz:

## “DEKRETUA

Anoetan, 2015ko ekainaren 22an.

*Kontuan harturik 2015eko ekainaren 13an ohiz kanpoko udal bilkuran Udal eraketa egin zela.*

*Kontuan harturik 7/1985 Legea Udal Erregimenaren Oinarriei buruzkoa 21.2 artikulua eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretua Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu Lege Erregimena onartzen duenaren 41.3 eta 46.1 artikulua, bertan esaten da alkateak izendatuko dituela alkate ordeak.*

*Dagozkidan eskuduntzen arabera, ERABAKI DUT:*

*Lehena.- Zinegotzietatik hurrengo alkate ordeak izendatzea:*

- 1. Josune Eizmendi Manterola*
- 2. Izaskun Jauregi Saizar*

*Bigarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzak egingo duen hurrengo bilera arruntean.*

*Honela agindu eta sinatu du Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa alkateak, eta neuk, Idazkariak fede eman”.*

## “DEKRETUA

Anoetan, 2015eko ekainaren 29an.

*Ikusirik talde politikoen erabilpenerako udaletxean bi areto daudela, bigarren solairuan aurkitzen direnak: 2.aretoa (ezkerrean) eta 3.aretoa (eskuinean).*

*Dagozkidan eskuduntzaz baliatuz, HONAKOA EBATZI DUT:*

*Lehena.- Talde politiko bakoitzari hurrengo bulegoak esleitzea:*

- 2. aretoa: Bildu*
- 3. aretoa: EAJ-PNV*

*Bigarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzak egingo duen hurrengo bilera arruntean.*



*Honela agindu eta sinatu du Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa alkate jaunak; eta neuk, idazkariak, fede eman”.*

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko zazpiak hogeit gutxi direnean; guzti honetaz, ni Idazkariak, fede ematen dudalarik.